



SANTIAGOS 2026 ERMUKO JAI AK

Piztu
euskararen
txinparta!



Euskara Salla



SALUDA DE LA ALCALDESA **ALKATEAREN AGURRA** **BEATRIZ GÁMIZ**



Herrikide maiteak:

Hemen ditugu gure Santixau-Jaiak, kalera irteteko, elkartzeko, partekatzeko eta elkarrekin gure herriko girorik onenaz gozatzeko egunak.

Itzel ospatzeko egunak dira, txoko bakoitza alaitasunez, musikaz, kolorez eta elkarbizitzaz betetzeko, familiarekin, lagunekin eta betiko jendearekin biltzeko, eta gehien berdintzen gaituenetik abiatuta, alegia, gozatzeko, parte hartzeko eta gure tradizioak biziki bizitzeko gogotik, komunitatea egiten jarraitzeko.

Guztiok animatu nahi zaituztet jai hauetaz ilusioz, errespetuz eta arduraz gozatzera, ekitaldi bakoitza, bazkari bakoitza, kontzertu bakoitza eta topaketa bakoitza etorkizunean gogoratzeko une berezi bihurtuz.

Eskerrak ematen dizkiet jai hauek posible egiteko lan egiten duten pertsona guztiei: elkarteei, txarangei, udal langileei, ostalariei, merkatariei, segurtasun-taldee, zerbitzu publikoei eta herritarrei, beraien ahalegin eta konpromisoarekin Santixau Jaiak partekatzeko ospakizun handi bat izatea ahalbidetzen dutelako.

Ez daitezela falta barreak, musika, kaleko giroa eta hainbeste identifikatzen gaituen herri harrotasun hori. Gozatu asko.

*Santixau Jai zoriontsuak denoi.
Besarkada handi bat*

Queridas vecinas y queridos vecinos:

Ya están aquí nuestras fiestas de Santiagos, unos días muy esperados para salir a la calle, encontrarnos, compartir y disfrutar juntos del mejor ambiente en nuestro pueblo.

Son jornadas para celebrar a lo grande, para llenar cada rincón de alegría, música, color y convivencia, para reunirse con la familia, con las amistades y con la gente de siempre, y para seguir haciendo comunidad desde lo que más nos une: las ganas de disfrutar, de participar y de vivir intensamente nuestras tradiciones.

Quiero animaros a todas y a todos a disfrutar de estas fiestas con ilusión, con respeto y con responsabilidad, haciendo de cada acto, de cada comida, de cada concierto y de cada encuentro un momento especial para recordar.

Mi agradecimiento sincero a todas las personas que trabajan para que estas fiestas salgan adelante: asociaciones, txarangas, personal municipal, hostelería, comercio, cuerpos de seguridad, servicios públicos y vecinos y vecinas que, con esfuerzo y compromiso, hacen posible que los Santiagos vuelva a ser una gran celebración compartida.

Que no falten las risas, la música, el ambiente en la calle y ese orgullo de pueblo que tanto nos identifica. Disfrutad mucho.

Felices fiestas de Santiagos.
Un abrazo grande

Aukeratu zure udako argazkia

Elige tu Foto de Verano

#gozamena #satisfacción



#kulpa #ridículo




#lagunak #risas



#lotsa #bajón



#adrenalina #pasión



#biharamuna #malestar



zaindu

zaitzez, goitezen, dezagun - cuidate, cuida tu mundo

BIZITZAZ GAINEZKA EMBRIÁGATE DE VIDA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



2026ko SANTIXAUAK ERMUKO JAIK

UZTAILAREN 14TIK 27RA

UZTAILAREN 14a, ASTEARTEA

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASen** hasiera “pepinoa” eta triatloi jokoeekin. Txarangen Batzordeak antolatuta.

Iluntzeko 8:30ean, Martxoaren 8a plazan, urban music **KONTZERTUA** Xsakara musikoarekin,

UZTAILAREN 15a, ASTEAZKENA

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK**. Oraingo honetan “harra” eta soka-tira lehiaketak izango dira.

Iluntzeko 8:30ean, Martxoaren 8a plazan, Orlis Pineda abeslari kubatarraren **KONTZERTUA**, Komite Internazionalistak antolatuta.



UZTAILAREN 16a, OSTEGUNA

Gaueko 9:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **HERRI OGITARTEKADA**. Ogitartekoak eta edariak banatuko dira oso salneurri berezian, Txarangen Batzordeak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA**. Lehiaketatik kanpo, Irulitxa txaranga arituko da giroa alaitzen.

UZTAILAREN 17a, OSTIRALA

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK** adreiluak eta jatorrizko bekatuaren jokoekin, Txarangen Batzordeak antolatuta.

Gaueko 10:00etatik goizeko 1:00etara, **PUNTU MOREA** San Pelaio kalean.

Gaueko 10:00etan, San Pelaio plazan, bertako Makis 37 taldearen **KONTZERTUA**.

Gaueko 11:00etan, San Pelaio plazan, El Drogas musikariaren **KONTZERTUA**.

Goizeko ordu 1:00etatik 3:00etara, **PUNTU MOREA** Erdikokale 5ean (Antzinako Bolintxon).

UZTAILAREN 18a, LARUNBATA

Goizeko 9:00etatik aurrera, Berano Nagusin (Hondakindegia zaharra), **ERAKUSKETA-TXAKURREN LEHIAKETA**, La Verdad ehiza eta arrantza -elkarteak antolatuta.

Goizeko 9:00etatik aurrera, Teodoro Zuazua futbol zelaian, Txarangen Batzordeak antolatutako **7 FUTBOLA TXAPELKETA**.

Goizeko 10:00etan, Orbe Kardinalaren plazatik, **URKORA 69tan ezetz! XV IGOERA KONTROLATUAREN IRTEERA**, Artarra Mendiko Taldeak antolatuta.

Goizeko 10:00etan, Orbe Kardinalaren pilotalekuan, **ARKU-TIRO PROBA**, Beti-Ondo arku-tiro taldeak antolatuta. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

Goizeko 11:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **XAKE-PARTIDA AZKAR ETA ALDIBEREKOEN ERAKUSTALDIA**, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

Arratsaldeko 4:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **MUS TXAPELKETA**, Afaltzaindiak antolatuta.



Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **DANTZA EMANALDIA**, Txindurri taldearen eskutik.

Iluntzeko 8:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **DJ FESTA** Mariskaldejaiarekin, Euskal Birusak antolatuta.

Gaueko 10:00etatik goizeko 1:00etara, **PUNTU MOREA** San Pelaio kalean.

Gaueko 10:00etan, San Pelaio plazan, bertako Orihen taldearen **KONTZERTUA**.

Gaueko 11:00etan, San Pelaio plazan, Zea Mays taldearen **KONTZERTUA**.

Goizeko ordu 1:00etatik 6:00etara, **PUNTU MOREA** Erdikokale 5ean (Antzinako Bolintxon).

UZTAILAREN 19a, IGANDEA

Goizeko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **HERRIEN ARTEKO XXIX. XAKE PARTIDA ARINEN TXAPELKETA**, Ermuko Xake taldeak antolatuta.

Eguerdiko 12:00etan, **II. BIZIKLETA JAITSIERA DH ERMUA**, Ultzama gainean hasi eta Santa Ana auzoan amaituko dena, Ermuko Txirrindulari elkarteak antolatuta.

Eguerdiko 12:00etan San Pelaioko bolatokian **EMAKUMEZKOEN BOLO PALMA VII. TXAPELKETA** Campoo de Yuso (Cantabria), Camargo (Cantabria) eta Ermuko bolozale-taldeen partaidetzarekin, Peña Bolística Montañesa de Ermua taldeak antolatuta.



Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, Ermuko Kultur Etxeek **MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA** eskainiko dute eskualdeen eguna dela-eta, Letswao (Bostuana) y Ataköy (Turquía) taldeen eskutik.

UZTAILAREN 20a, ASTELEHENA

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOLASAK**: soka-tiraren finala eta "kuboen proba" jokoarekin

Iluntzeko 8:30ean, **BERTSO JAIALDIA** Martxoaren 8a plazan, Deba Beheko Bertso Eskolak antolatuta. Bertan izango dira Irune Basagoiti, June Aiestaran, Unai Mendiburu, Maddi Agirre, Danel Herrarte eta Ixone Asategi . Gai jartzaile: Maialen Bergara.

UZTAILAREN 21a, ASTEARTEA

Gaueko 10:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **PLAY-BACK LEHIAKETA** hasiko da, Txarangen Batzordeak antolatuta.





UZTAILAREN 22a, ASTEAZKENA

Arratsaldeko 6:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, **PROFESIOALEN ARTEKO LAU T,ERDIKO PILOTA PARTIDA. Aurretik, gazteen lau t,erdiko partida.** Ermuko Pilota taldeak antolatuta. (Euria ba du, Aritzmendi pilotalekuan izango da ekitaldi hau)

Iluntzeko 8:30ean, elizpean, Momak taldearen **KONTZERTUA**, Euskal Birusak antolatuta.



UZTAILAREN 23a, OSTEGUNA (Umeen eguna)

Goizeko 11:00etan, Orbe kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO TXUPINAZO** koloretako hautsekin, Haurren Kontseiluak antolatuta. (Igerilekuko betaurrekoak eta erabilitako arropa ekartzea gomendatzen da).

Goizeko 11:15ean, **BURUHANDIAK**
Orbe Kardinalaren plazan

Goizeko 11:30etatik ordu 1:30etara eta arratsaldeko 4:00etatik 7:00etara, Orbe Kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO**

UR PARKEA eta TAILERRAK, Txarangen Batzordeak antolatuta. (bainu-jantzia ekartzea derrigorrezkoa da)

Arratsaldeko 4:00etan, BURUHANDIAK Orbe Kardinalaren plazan.

Arratsaldeko 5:30ean, HAURENTZAKO TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan, Txarangen Batzordeak antolatuta.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, "Sardi na freskue" **HAURENTZAKO MUSIKA IKUSKIZUNA**, Eidabe taldearen eskutik.

Arratsaldeko 8:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **APAR JAI**.

Gaueko 10:00etatik goizaldeko ordu 1:00etara, Martxoaren 8a plazan **FESTAN BLAI** gazteentzako zuzeneko musika Oizeder Mayo DJaren eskutik.

Gaueko 10:00etatik goizeko ordu 1:00era, **PUNTU MOREA** Martxoaren 8a plazan.

UZTAILAREN 24a, OSTIRALA

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXUPINAZOA** eta ohiko **KALEJIRA** Irulitxa eta New Tocados musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

Arratsaldeko 7:00etatik goizeko 1:00etara, **PUNTU MOREA** Patxi plazan.

Gaueko 10:00etatik 3:00etara, Martxoaren 8a plazan **TECHNO JAIALDIA** Raúl Parra, Aitana Rodríguez y Alexander M. Djekin, Beti Txarto taldeak antolatuta.

Gaueko 11:30ean, DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Vulkano Show orkestrarekin.



Goizeko 1:00etik 6:00etara, PUNTU MOREA Erdikokale 5ean (Antzinako Bolintxon)

UZTAILAREN 25a, LARUNBATA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, Txarangen Batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak, Txarangen Batzordeak antolatuta. Laguntzailea: Goxo-Goxo dastategia.

Goizeko 8:00etan, **BIGANTXAK** Ongarai Eskolako patioan.

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, 2 eta 4 urte bitarteko **HAURRENTZAKO MINI PARKEA**, Kaltxango plazan.

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

Eguerdiko 12:30ean, Santiago Apostoluaren elizan **MEZA NAGUSIA** patroien omenez.

Eguerdiko 12:30ean, HERRI-KIROL ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan. Probak eta partehartzaileak: **HARRIJASOTZAILEA:** Estefi Etxebeste **AIZKOLARIAK:** Hodei Ezpeleta, Mikel Agirre, Mitxelena eta Bihurri. **TXINGAK** eta **UNGUDEA:** Ainhoa Larrinoa **IPARRALDEKO JOKOAK:** Karlos Aretxabaleta eta Mikel Agirre.

Eguerdiko 12:30ean, KALEJIRA La Tuna Bando txarangaren eskutik.

Eguerdiko 12:30ean, KALEJIRA Joselontxos txarangaren eskutik.

Arratsaldeko 5:00etan, Aritzmemdi pilotalekuan, **PROFESIOALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK.** Ermuko Pilota Taldeak antolatuta.

Arratsaldeko 7:00etan, Mugartea taldearen **MARGO KOADROEN ZOZKETA,** Zubiaurre kalean.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **KALEJIRA** La Tuna Bando txarangarekin.

Arratsaldeko 8:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **LARRAINDANTZA** nahi duen guztiak parte hartzeko.

Arratsaldeko 8:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **EUSKARAREN ALDEKO KOMPROMISO-TOPA,** Afaltazaindia taldeak antolatuta.


Gaueko 10:00etatik goizeko 1:00etara, PUNTU MOREA Patxi plazan.

Gaueko 10:00etatik 3:00etara, Martxoaren 8a plazan ROCK JAIALDIA Donostialdeako Son of Decay eta Vigoko Velkhanos taldeekin eta beste hirugarren talde batekin. Beti Txarto taldeak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, San Pelaioko plazan, "Express" KALE IKUSKIZUNA, Faltan 7 konpainiaren eskutik.

Gaueko 11:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, Alaska On Tour orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.

Goizeko 1:00etik 6:00etara, PUNTU MOREA Erdikokale 5ean (Antzinako Bolintxon)





UZTAILAREN 26a, IGANDEA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leon Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan **BARRUS** partidak.

Goizeko 8:00etan, **BIGANTXAK**. Ongarai Eskolako patioan

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, 2 eta 4 urte bitarteko **HAURRENTZAKO MINI PARKEA**, Kaltxango plazan

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, San Martin plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA**.

Eguerdiko 12:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **NAGUSIEI OMENALDIA** eta **SARI-BANAKETA** Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.

Eguerdiko 12:00etan, **KALEJIRA** Guanajuatoko (Mexiko) Mariachi Imperial taldearekin. **Eguerdiko ordu 1:00ean**, **KONTZERTUA** eskainiko dute Orbe kardinalaren plazan.

Eguerdiko 12:30ean, **KALEJIRA** Ustekabe txarangarekin.

Arratsaldeko ordu 2:00etan, Merkatu Plazan, Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.

Arratsaldeko 6:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **ESKUPILOTA** partidak, Pilota Taldeak antolatuta: lehengo afizionatu kategoriako nesken binakako partida, eta ondoren afizionatu kategoriako mutilen binakako partida.

Arratsaldeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen "Ekilikua" **HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA** eskainiko dute.

Arratsaldeko 7:00etan, **KALEJIRA** Alboka musika eskolako txarangak alaituta.

Arratsaldeko 7:00etan **KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.

Arratsaldeko 8:00etan Orbe Kardinalaren plazan **LARRAINDANTZA**.

Arratsaldeko 8:00etan, **KALEJIRA** Rockalean taldearen eskutik.

Gaueko 10:00etatik goizeko 1:00etara, **PUNTU MOREA** Patxi plazan.

Gaueko 10:00etatik 3:00etara, Martxoaren 8a plazan, **TRANCE MUSIKA JAIALDIA** Patt, Javier Ganuza, Andrew Car, Bixent eta Alexander M. Djekin, Jail Room elkarteak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, San Pelaio plazan, "Les tambeurs de feu" **KALE IKUSKIZUNA** Deabru beltzak taldeak eskainita.

Gaueko 11:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, Pasarela Orkestrak **DANTZALDIA** alaituko du.

Goizeko 1:00etik 3:00etara, **PUNTU MOREA** Erdikokale 5ean (Antzinako Bolintxon)

UZTAILAK 27, ASTELEHENA

Goizeko 7:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, **TXOKOLATE-JANA**, Gaztela-Leoneko Kultur Etxeak eskainita.

Goizeko 7:30ean, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan, **BARRUS** partidak.

Goizeko 8:00etan, Ongarai Eskolako patioan, **BIGANTXAK**.

Goizeko 11:00etatik 12:30era, arroz-banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETA** herrikoari ekingo zaio. Lobiano Gastronomi elkarteak antolatuta. Laguntzailea: Ermuko dendari eta ostalarien elkarteak antolatuta.

Goizeko 11:00etan, Martxoaren 8a plazan, **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.

Eguerdiko 12:00etatik 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, 2 eta 4 urte bitarteko **HAURRENTZAKO MINI PARKEA**, Kaltxango plazan

Eguerdiko 12:00etatik ordu 2:00etara eta arratsaldeko 5:00etatik 8:00etara, San Martin plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA.**

Eguerdiko 12:30ean, KALEJIRA Irulitxa txarangaren eskutik.

Eguerdiko ordu 1:00etan KALEJIRA, Macjeara,s Jazz bandaren eskutik.

Eguerdiko 1:00etan, Orbe Kardinalaren plazan, "Mute" **KALE IKUSKIZUNA,** Orain bi konpainiaren eskutik.

Arratsaldeko ordu 2:00etan, paella lehiaketara aurkeztutako platerrak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA.**

Arratsaldeko 6:00etan Orbe Kardinalaren plazan, **ERROMERIA,** Lotxo taldeak alaituta.

Arratsaldeko 7:00etan, KALEJIRA Irulitxa txarangaren eskutik.

Arratsaldeko 7:00etan, KALEJIRA Macjeara,s Jazz bandaren eskutik.

Arratsaldeko 7etan, Orbe Kardinalaren plazan paella lehiaketako epaimahaikideek **IRABAZLEAK** ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** egingo da.

Arratsaldeko 7:15ean, Orbe Kardinalaren plazan **AURRESKUA** eta **LARRAINDANTZA** nahi duten guztientzat.

Arratsaldeko 8:00etan, ERROMERIA BERRIZ ERE Lotxo taldeak alaituta.

Arratsaldeko 8:30ean, KALEJIRA Artistas del Gremio bandarekin.

Gaueko 10:00etatik 3:00etara, Martxoaren 8a plazan, **TECH HOUSE MUSIKA JAIALDIA** Stan Garac, Ash, Markos eta Alexander M. Djekin, Jail Room elkarteak antolatuta.

Gaueko 10:30ean, Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.

Gaueko 11:00etan, Ongaraiko parkean **SUZIRIAK** Valecea pirotekniaren eskutik. Ondoren, **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino bertan, jaiak agurtuz, **AGUR JAUNAK** elkarrekin abesteko,

Gaueko 11:30ean, Orbe Kardinalaren plazan, **JAIEEN AMAIERA** Travellin` Brothers Big Bandaren kontzertuarekin.



Tel.: 902 271 902
www.editorialmic.com

Argitaratzen duena: Ermuko Udala

Azala: Marina Ortega del Burgo. 2026ko Santixauko kartel lehiaketaren irabazlea.

Argazkiak: Ermuko Udala.

2026ko Santixauak

PAELLA-LEHIAKETAREN OINARRIAK

1 Izena eman duen edozein koadrila, txaranga eta pertsona taldek parte hartu ahal izango du. Izena uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako eskenatoki txikian eman beharko da, goizeko 11:00etatik 12:30etara.

2 Paella bide publikoan egin eta jan beharko da uztailaren 27an bertan. Izena ematean izen bat eta bi abizena eman beharko dira, bai eta telefono zenbakia eta paella zein lekutan egingo den adierazi.

3 Parte hartzeagatik bakarrik, Ermuko Dendari eta Ostalarien Elkarateak amantala eta 10 mahaikideko arroz pakete bat emango dizkio koadrila edo talde bakoitzari.

4 Antolatzaileek ez dute inolako sukalde-tresnarik emango (sua, lapikoak...)

5 Uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako eskenatoki txikian, aurkeztu beharko dira paellak, arratsaldeko 14:00etatik 15:00etara, epaimahaikoek balora ditzaten. Hauek dastatu ondoren lehiakideei

itzuliko diete. Paella aurkezten den momentuan, txaranga bakoitzak bi botila-ardo hartuko ditu parte hartzeagatik.

6 Epaimahaikoak paella egiten ari den lekura joan daitezke, nola egiten ari den ikustera.

7 Bi sari izango dira:

- 1. Saria: 500 € eta garaikurra
- 2. Saria: 200 € eta garaikurra.

Ondorengo ezaugarriak kontutan hartuko dira: aurkezpena, sukaldaritza puntua, testura eta zaporea. Azken honek balio handiena izango duena izanez.

8 Epaimahaikoen erabakia apelaezina izango da, eta Orbe Kardinalaren plazan egunean bertan, arratsaldeko 19:00etan adieraziko da.

9 Lehiaketan parte hartzeak berori arautzen duten oinarriak onartzea suposatzen du. Oinarriok interpretatzeko orduan zalantzaren bat sortzen bada, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du.

